

## Itzulpenaren erotika jorratu du Patxi Zubizarretak Literatura Astearen 2. egunean

2007/05/09

Patxi Zubizarretak ipuin erotiko baten bidez piztu nahi izan du HUHEZIKo ikasle-irakasleen jakin-mina. “**Alarguntsa gaztea**” irakurri dute lau hizkuntzatan Zubizarretak berak **euskaraz**, eta Irakasletzako hiru ikaslek **frantsesez** (Iosu Sanchez), **gaztelaniaz** (Garazi Agirre), eta **ingelesez** (Miren Otamendi), hurrenez hurren; lantzean behin ipuinaren paragrafo bat irakurri dute laurek; gero Zubizarretak iruzkin batzuk egin ditu literaturaz eta itzulpengintzaz; eta, berriz, ipuinarekin aurrera. Ipuinaren jakin-minak bultzatuta, **kultura arabiarraren kalezuloetan** barrena bidaiatu dugu, sensueltasun betean murgildu gara eta plazerraren eta gozatzearen gai unibertsalaz kutsatu gaitu.

“Itzultzaileak biluztu egiten du obra, eta gero berriz jantzi bere hitzekin”, esan du Patxi Zubizarretak: horregatik sartu du “erotika” hitza hitzaldiaren izenburuan.

Euskal itzulpenak ez omen dira beti erakargarriak izan, baina orain oso maila altua dutela irizten dio idazleak, eta Literatura Unibertsaleko bilduma aipatu du horien eredu: tartean kanpoko literaturetatik itzuli diren lan interesgarriak daude; gainera, **itzultzaile fin askoak** dabilta autore oso ezagunen obrak dotore euskaratzen.

